


Bidebieta

Gomistegi zaharberritzeko proiektuaren nondik norakoak

2003ko udazkenean eman zion Udalbatzak oniritzia Gomistegin 170 etxebizitza egiteko proiektuari. Etxeak ez ezik, plaza, lur azpiko aparkalekua eta errepidea egingo dituzte.



Hemen egingo dituzte babes ofizialeko etxeak.

Joan den urtearen amaieran eraikin zaharrak eraisten hasi ziren. Hain zuzen ere, Lasa enpresaren egoitza lurrera bota zuten. Duela aste gutxi, haren ondo-

ko bakailao biltegi zaharraren teilatua eraisten hasi ziren.

Gomistegin, guztira, 170 etxebizitza eraikiko dituzte.

Bakailao biltegi zaharra da- goen lekuan salmenta libreko 112 etxebizitzako eraikin bat egingo dute. Eraikin horrek sei solairu izango ditu eta ondoan -Lasa enpresaren egoitza zegoen tokian- plaza egingo dute. Kontadore gaztelekua eta Zentek Enpresa Gunearen ondoko orubean lau solairuko bi eraikin egingo dituzte. Horietako batean, 34 etxebizitza egingo dituzte, guztiak babes ofizialekoak. Bestean, salmenta libreko 24 etxebizitza eraikiko dituzte. Egin behar dituzten hiru eraikinon azpialdean 300 bat autorentzako lekua izango da. Inguru horretan egun dauden etxeak, bestalde, bere horretan mantenduko dituzte.



Haur txokoa udarari begira

Urtero bezala, haur txokoak udaleku irekiak zein kanpaldia antolatuko ditu udaran. Udaleku irekiak ekainaren 28tik uztaillaren 23ra arte izango dira, astelehenetik ostiralera, eta 4 eta 11 urte bitarteko neska-mutilek parte hartu ahaliko dute. Udalekuon kuota 100 eurokoa da bazkideentzat eta 110 euro bazkide ez direnentzat. Kanpaldia, bestalde, Burgosko El Brezal kanpenean izango da, uztaillaren 19tik 25era bitartean eta 11 eta 14 urte bitarteko gaztetxoak joan ahaliko dira, 115 euro ordainduta. Udaleku irekietarako zein kanpaldirako, ekainaren 10a baino lehen eman behar da izena.

Errepidea

Gomistegi zaharberritzeko egitasmoan bestelako lanak aurreikusi dituzte. Hala, errepidea egingo dute, aparkalekuetara joan ahal izateko. Azkenik, osasun etxearen atzealdeko berdegunea txukuntzeko asmoa dute.

**Babes ofizialeko
34 etxebizitza
egingo dituzte**



Bakailao biltegi zaharra botatzen ari dira.